

Gure hiriburu nagusien hazketa

Deia, 1977-08-26.

Atzo ari ginen inmigrante eta emigrantez hizketan.

Ba dugu hor Euzkadin arazo larri bat.

Baina ba dugu beste neurri batean, gure herriaren hazketa delata, garrantzi handiko beste arazo kezkarri bat ere.

Hara.

OIT-ek Ginebran argitaratu du egin berria duen azterketa bat. Nazioarteko Langile Erakunde-aren izenean, Paul Bairoch-ek egin du lana. Bairoch jaun hau, Ginebrako Unibertsitatean irakasle da, eta hirugarren munduko herrien populazioaz kezkatuta egin du azterketa; baina gurearentzat ere egokia dela iruditu zaitenez, hara hemen dato batzu.

Hauzi nagusia: Hiri nagusietara biltzen ari den jende-multzoa.

Kontuak egin dira 2.000 urte-rako: Mexico-k 32 miloi izango ditula; Sao Paulo-k, 26 miloi; Bogota-k, 10 miloi baino gehiago, eta beste hainbeste Bombay, Calcuta eta Yakarta-k, esate baterako.

Euskaldunontzat, mundu osoa da kezkarri.

Baina Euzkadi lehenengoz.

Azterketa honek dionez, hiri nagusiak ez lukete 600.000 pertsonatik gora igo behar. Hiri nagusiak ez lukete, beste alde batetik begiratuta, herrialde osoaren %20-tik pasa behar, eta askotan %60 ere ba dituzte.

Ni, noski, gure hiriburuez gogoratu naiz.

Eta hara arkitu dutana.

Jarri gaitzen 1975-an, azken zensoan.

Alde batetik, azken urte hoietan hiriburuak beste herrialdetako lurraldeak baino azkarrago hazi dira.

Hala: Gazteiz, Araba baino %66 gehiago hazi da.

Donostia, Gipuzkoa baino %26 gehiago.

Iruña, Nafarroa baino %31 gehiago.

Bilbo, Bizkaia baino %39 gehiago.

Honek zer esan nahi du?

Laster, gure baserri-mendiak eta herrixkak hustu egingo zaizkigula, eta hiriburuak gainezka bete.

OIT-ko informe honek dionez, egin behar ez dena.

Gaur bertan, Bilbo: 410.000 biztanle ditu.

(Bilbo handiak, ia 750.000).

Beraz: %47 edo %75.

Donostiak: 165.000.

(Errenderi: 46.000; Irun: 51.000; Lasarte: 25.000 eta Pasai: 22.500, erantsi ezkeror: 310.000).

Beraz: Gipuzkoak 631.000 baditu: ia %50.

Iruñak: 147.000; Nafarroak, 464.000.

(Burlada bakarrik erasten badiogu, izango du %40 gutxienez Gasteizek: 136.000; Araba osoan 204.000 bizi badira, %66,6. Hara, ba, noraino heldu garen, eta norantz goazen (2.000 baino lehenago!) oraingo bideak zuzentzen ez baditugu.

Gauza asko dago egiteko, Euzkadi bizileku egoki bat egin nahi ba dugu, eta hoietatik bat, Herri osorako plan orokor bat.